

KANALAK

Hainbat modutan komunikatuko gara gure bezeroekin eta orokorrean jendearekin. Gure komunikabide garrantzitsuena, sortuko dugun web orria izango da. Betan burutuko da produktuen salmenta. Erlazio hau oso garrantzitsua izango da gure salmentak ahalik eta altuenak izateko: bezeroei gure arropa kolekzio berriari buruz ohartarazi, promozioak egitea, laburmetraien aurkezpena, deskontuak... hauek denak kanalei esker gauzatuko dira.

Web orriaz gain, sare sozialen bidez komunikatuko gara. Batez ere instagram erabiliko dugu, instagramen jartzen joango gara irteten joango diren modelo eta diseinu berriak. Diru nahikoa eta baliabideak lortzen ditugunean sareetan gure ekintza eta bidaien bideo eta argazkiak igotzea da gure helburua.

Produktuen garraioa etxeetara posta bidez egingo dugu. Hasiera batean Durangalde maila saltzen hasiko gara eta apurka-apurka, etekinak baditugu eta negozioak aurrera egiten badu Euskal Herri mailara pasako gara. Guzti hau garraio-enpresen bidez egitea da gure helburua.

Euskal herri mailan arropa ondo saltzen bada, Europa mailako zerbitzuak ematen hasiko gara, garraio enpresak erabiliz. Guzti hau etekinak baditugu eta baldintzak onak badira, izan ere, defizit ekonomiko batean horrelako gauzak gauzatzea ez da komenigarria.

Elkarte ezberdinekin aliantzak egitea ere interesgarria izan ahal da. Gure enpresari buruzko publizitatea egiteko eta jendearengan gure elkarteko ideiak zabaltzeko. Aldizkari eta egunkari batzuekin tratuak egiteko aukera ere badugu, gure marka euskal herrian zehar zabaldu ahal izateko.

* Kanal teknologikoak sortzeko gure lagunak laguntzaz baliatuko gara, izan ere, lagun batzuk Web orri eta sare-sozialeko kontuetan adituak dira.